Save the Children | DEFENSOR DEL PUEBLO

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

12-14 urte bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa

I.- GIZA ESKUBIDEAK

Pertsonen duintasunak pertsona izate hutsagatik dagozkien eskubide eta askatasunak errekonozitu eta errespetatzea eskatzen du. Giza eskubideak direlakoetan dago jasota hori. Eskubideok berdinak dira denontzat, gure adina, sexua, arraza, kolorea, jatorri nazional, etniko edo soziala, erlijioa, iritzia, hizkuntza, ezgaitasuna edo beste edozein gorabehera pertsonal nahiz sozial edozein direla ere. Haurrek ere eskubide horiek dituzue. Horrez gain, zuoi dagozkizuen eskubide batzuk dituzue: haurren eskubideak. Estatuei eta jende helduari dagokie eskubide horiek betearazteko ardura.

II.- HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMENA

1989an 193 herrialdek hitzarmen hau sinatu zuten haurren eskubideak babesteko asmoz. Poster hauetan dauzkazue eskubide horiek. Hitzarmen horretako eskubide guztien artean, gainerako guztiak interpretatzeko oinarri diren lau nabarmentzen dira: diskriminatua ez izateko eskubidea (2. artikulua); haurren interes gorena babesteko eskubidea (3.1. artikulua); bizitzarako, biziraupenerako eta garapenerako eskubidea (6. artikulua); berei dagozkien gai guztietan beren iritzia emateko eskubidea, eta, ahal den neurrian, iritzi hori aintzat hartua eta errespetatua izateko eskubidea (12. artikulua). Estatuek beste bi hitzarmen sinatu dituzte, Hitzarmenari lotutako Aukerako Protokoloak direlakoak: haurren salmentaren, haurren prostituzioaren eta haurrak pornografian erabiltzearen aurkakoa da bat, eta haurrak gatazka armatuetan parte hartzearen aurkakoa, bestea.

III.- HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMENEKO HIRUGARREN AUKERAKO PROTOKOLOA

Hitzarmen horri jarraiki, Haurren Eskubideen Batzordea delako organo independentean salaketak aurkez ditzakezue idatziz, bakarka nahiz taldean, eta zuen herrialdean kexa aurkezteko dituzuen bide guztiak agortutakoan, Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenean eta hari lotutako bi protokoloetan jasotako eskubideak errespetatu ez zaizkizuela iruditzen bazaizue.

Art. 1 HAURRAREN DEFINIZIOA

Hitzarmen hau haur guztiei aplikatzen zaie, eta haurtzat jotzen dira jaiotzen direnetik hemezortzi urte bete arteko pertsona guztiak. Gaztetxoak ere multzo horretan sartzen dira, beraz.

Art. 2 EZ-DISKRIMINAZIOA

Hitzarmen honetako eskubideak neska-mutil guztiei dagozkie, haien sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko nahiz bestelakoa, jatorri nazional, etniko edo soziala, maila ekonomikoa edo ezintasun fisikoa edozein direla ere.

Art. 3 HAURREN INTERES GORENA

Erakunde publiko edo pribatu batek edo pertsona batek erabaki bat hartu behar badu haur edo gaztetxo bati buruz, haur eta gazteentzat egokiena dena aztertu beharko du lehenik eta behin. Estatuek konpromisoa hartzen dute haurren ongizaterako beharrezkoa den babes eta arreta bermatzeko haur guztiei.

Art. 4 ESTATUEK ESKUBIDEAK BETEARAZTEKO DUTEN ERANTZUKIZUNA

Gobernuek eta agintariek ahal duten guztia egin behar dute Hitzarmen honetan jasotako eskubideak errespetatu daitezen.

Art. 6/27 BIZIMODU DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek dute bizitzeko berezko eskubidea. Estatuek ahal duten guztia egingo dute neska-mutilen biziraupen eta garapena bermatzeko. Neska-mutil guztiek dute beren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako bizi-maila egokia izateko eskubidea.

Art. 7 IZENA ETA NAZIONALITATEA IZATEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiak inskribatu egin behar dira jaiotakoan, eta eskubidea dute izena eta nazionalitatea izateko, gurasoak ezagutzeko eta haiek zainduak izateko.

Art. 8 NORTASUNERAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek dute beren nortasuna, izena, nazionalitatea eta senideekiko harremana gordetzeko eskubidea.

Art. 9/20 GURASOENGANDIK BANANDUTAKO NESKA-MUTILEN BABES BEREZIA

Neska-mutilak ezin dira gurasoengandik banandu, haien hobe beharrez ez bada. Aldi baterako nahiz behin betiko familiarengandik banandutako neska-mutilek eskubidea dute agintarien babesa eta laguntza jasotzeko, eta neska-mutilok ikasten jarraitzen dutela bermatu beharko dute agintariok.

Art. 10 FAMILIA BATZEA

Bere familia batzeko pertsona batek estatu batean sartu edo handik ateratzeko egindako eskaerei modu positibo, humanitario eta eraginkorrez erantzun behar diete estatuek.

Art. 11 LEGEZ KANPOKO LEKUALDATZE ETA ATXIKIPENAK

Agintariek eragotzi egin behar dute neska-mutilak atzerrira bidegabeki eramatea dituztela eta han atxikitzea.

Art. 13 ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek dute adierazpen-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek esan nahi du askatasuna izan behar dutela era guztietako informazio eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko, beste inoren eskubideen aurka ez badoaz.

Art. 12 IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute gai guztiei buruz duten iritzia libreki emateko eta berekin zerikusia duten gaietan entzunak izateko. Horrek esan nahi du eskubidea dutela komunitateko eta gizarteko arlo desberdinetan parte hartzeko.



Art. 16 INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute beren bizimodu pribatua izateko. Haien pribatutasuna, familia eta korrespondentzia (gutunak, SMSak, posta elektronikoa) erasoetatik babestu beharra dago.

Art. 17 INFORMAZIO EGOKIA JASOTZEKO AUKERA

Neska-mutilek eskubidea dute haien ongizate sozial, espiritual eta morala eta haien osasun fisiko eta mentala sustatzeko helburua duten informazio eta materialak eskuratzeko, hainbat iturritatik.

Art. 14 PENTSAMENDU, KONTZIENTZIA ETA ERLIJIO ASKATASUNA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute nahi duten pentsaera, kontzientzia eta erlijioa izateko.

Art. 15 BESTEEKIN ELKARTZEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute besteekin elkartzeko eta bilkura baketsuak egitekoques.

Art. 19/34 TRATU TXARREN AURKAKO BABESA

Neska-mutilek eskubidea dute edozein eratako kalte, gehiegikeria eta tratu txarretatik babestuta egoteko, eta hor sartzen dira era guztietako esplotazio eta sexu-abusuak.

Art. 18 GURASOEN ERANTZUKIZUNA HAURREN EGUNEROKO ZAINTZAN

Neska-mutilen heziketa eta garapenaren gaineko erantzukizuna haien gurasoei dagokie. Agintariek laguntza egokia eman behar diete gurasoei zeregin horiek bete ahal izateko.

Art. 21 HARRERA EDO ADOPZIO KASUETARAKO BABESA

Neska-mutil bat adoptatu edo harreran hartzen den kasuetan, harekin zerikusia duen erabakiren bat hartzeko garaian, haren ongizate pertsonala izango da lehentasun nagusia.

Art. 22 NESKA-MUTIL ERREFUXIATUEN BABESA

Neska-mutil errefuxiatuek eskubidea dute babes berezia jasotzeko. Agintariek elkarlanean jardun behar dute neska-mutil errefuxiatuak babesten dituzten antolakundeekin.

Art. 24 OSASUNERAKO ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO ESKUBIDEA

Gaixorik daudenean, osasun-etxera joateko eta sendatuak izateko eskubidea dute neska-mutilek.

Art. 28/29 HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Neska-mutilek eskubidea dute aukera-berdintasunean oinarritutako hezkuntza jasotzeko. Agintariek nahitaezko eta doako lehen hezkuntza eskaini behar diote jende guztiari, eta bigarren hezkuntzaren garapena sustatu behar dute. Neska-mutil guztien hezkuntzak haien izaeraren eta gaitasunen garapena bultzatu behar du. Neska-mutilek giza eskubideak eta pertsonen oinarrizko askatasunak errespetatzen ikasi behar dute.

Art. 33 DROGEN KONTSUMO ETA TRAFIKOAREN AURKAKO BABESA

Estatuek beharrezko neurri egoki guztiak hartu behar dituzte gaztetxoak drogen legez kanpoko erabileratik babesteko, eta drogen ekoizpen eta trafikorako erabiltzen dituztela eragozteko.

Art. 23 EZINTASUNA DUTEN NESKA-MUTILEN ESKUBIDEAK

Ezintasun fisiko, sentsorial edo psikikoren bat duten neska-mutil guztiek eskubidea dute bizimodu betea izateko haien duintasuna bermatzen duten baldintzetan, beren kabuz jarduteko eta komunitatean parte-hartze aktiboa izateko moduan.

Art. 32/36 LAN ARRISKUTSUEN ETA EDOZEIN ESPLOTAZIO MODUREN AURKAKO BABESA

Haur eta gaztetxoek eskubidea dute ekonomikoki esplotatuak ez izateko. Lan egiten badute, beren osasun edo garapenerako kaltegarriak ez diren baldintzetan aritzeko eskubidea dute. Neska-mutilek eskubidea dute beren ongizateko edozein alderditarako txarra den esplotazio modu orotatik babestuta egoteko.

Art. 30 GUTXIENGOEN BABESA

Gutxiengo etniko edo erlijioso batekoak diren edo hizkuntza gutxituren bat hitz egiten duten neska-mutilek eskubidea dute beren bizitza kulturala izateko, beren erlijioa praktikatzeko eta beren hizkuntza erabiltzeko.

Art. 31 JOLASTEKO ETA ATSEDEN HARTZEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute jolasteko, atseden hartzeko eta beren adinari dagozkien jolas-jardueretan parte hartzeko. Era berean, eskubidea dute jarduera kultural eta artistikoetan parte hartzeko.

Art. 35 NESKA-MUTILEN BAHIKETA, SALMENTA ETA SALEROSKETAREN AURKAKO BABESA

Estatuek beharrezko neurriak hartu behar dituzte neska-mutilen bahiketa, salmenta eta saleroseta galarazteko, edozein xedetarako dela ere.

Art. 38 HAURRAK SOLDADU GISA ERABILTZEAREN AURKAKO BABESA

Hamabost urtetik beherako neska-mutilek eskubidea dute gatazka armatuetan parte hartzeko soldadu gisa erabiliak ez izateko, eta estatuek bermatu egin behar dute eskubide hori.

Art. 40 LEGE-AUZIAK DITUZTEN NESKA-MUTILAK

Neska-mutilen bat delitu baten errudun jotzen badute, eskubidea izango du tratu duina jasotzeko, laguntza juridikoa eskuratzeko, interprete bat izateko erabilitako hizkuntza ulertzen ez badu, bere auziaren gaineko informazioa jasotzeko eta haren ongizate eta birgizarteratzea bultzatzen duten hezkuntza-programetan parte hartzeko.

Art. 41 LEGE EGOKIENA

Haurren eskubideak, Hitzarmen honetan ez ezik, estatuen barne-legeetan eta estatuek sinatutako nazioarteko legeetan ere jaso daitezke. Neska-mutilei egokien eta onuragarrien zaien legea aplikatuko zaie.

Art. 42 HITZARMENAREN ZABALKUNDEA

Eskubide hauek ezagutzera eman behar dituzte gobernuek, erakundeek eta pertsona guztiek, mundu osoan errespetatu daitezen.

Defensor del Pueblo
C/ Zurbano, 42
28010 Madrid
900 10 10 25 (Doako telefonoa)
91 432 79 00 (24 orduko arretarako telefonoa)
registro@defensordelpueblo.es
www.defensordelpueblo.es

©Mercè Allàs | 12-14 urte bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa

FSC www.fsc.org MISTOA Papera Iturriarena zaindutz sortua FSC® C103654
M-36966-2014